

“Herentziari buelta eman behar zaio”

Korporazio berriak hilabete hauetan Udalean aurkitu dituen arazoei errepassoa egin zien

Bilduko ordezkariak udal agintea hartu zutenetik hiru hilabete igaro direnean atzo eguerdian lehenengo balorazio publikoa egin zuten.

Pablo Barrio alkateak azpimarratu zuenez, “egoera berriaren aurrean, gure burua kokatzeko hilabeteak izan dira” eta “kokatze prozesu hori ez da bukatu oraindik”.

Arazaok

Jarraian, “herentzian jasotako” egoera aztertu zuten korporazio berriko kideek. Alkateak azaldu zuenez, pertsonalismo handia zegoen, “alkate orojakilearen figura izan da hemen eredu. Ondorioz, alkatearen gehiegizko kontrolean oinarritu dira udal barruko egiteko moduak”.

Eta honek Udalean hainbat arazo sortu zituela salatu zuten. Lehenengoa, dialogo falta. “Langile eta teknikarietako harremanetan elkarriketa baztertu eta modu autoritarioak izan dira nagusi. Langileak presiopean izan dira kasu askotan,” azaldu zuen Barriok.

Bestetik, gauzak ahoz, irizpiderik gabe eta modu informalean egiteko ohitura zegoela ere jakinarazi zuen, “askotan ez dago ez araudirik, ez protokolorik gauzak egiteko prozedurak eta moduak zeintzuk izan behar diren azaltzeko”.



Bilduko korporazio kideek hiru hilabete hauetako azterketa egin eta aurkitu dituzten arazo ugari azaldu zituzten.

Orain artean erabakiak momentuko behar, gogo, nahi edota kapritxoaren arabera hartzen zirela salatu zuen alkateak. “Modu horretan jokatuz faborritismo, lagunkeria eta mota guztietako susmoie zabaltzen zaizkiela ate guztiak; kontrol mekanismoen kaltetan” aipatu zuen.

Dirulaguntzak banatzeko irizpideak edota hiribusarekin gertatutakoa jarri zituzten adibide gisara. Esaterako, iazko azarotik urtarilerara arte, Hiribusaren Proba Pilotoak sortutako zorra ordaindu gabe dagoela salatu zuten.

Gainera, Hiribusaren zerbitzua sortu gabe dagoela azpi-

marratu zuten, “ez dago inongo dokumenturik ez akordioarik sinatuta. Halako modu... piratan dago martxan”.

Gauzak honela, arazo hauei guztiei buelta emateko lanean dihardutela jakin arazi zuten Korporazioko kideek.

Murrizketak

Ekonomiari dagokionez, 2008. urteko aurrekontuarekin segitzea, herentzia larria dela azpimarratu zuten, “beste egoera ekonomiko eta beste arazoei aurre egiteko sortutako dokumentua baita”.

Honela, 2011. urtea bukatzeko Plan Ekonomikoa egin dutela eta 2012. urteko aurre-

kontuan lanean ari direla aurreratu zuten.

Izan ere, egungo krisi ekonomikoa dela eta, Udalak Diputaziotik jasotzen dituen diru sarrerak %11 murriztuko direla adierazi zuten. Eta adinduen omenaldiko bazkari mahaikide kopururuaren murrizketa, beste askoren artean lehenengoa izango dela jakin arazi zuten.

Hirigintza

Hirigintzan ere hainbat arazo aurkitu dituzte, larrienak batetik, etxegintzaren arloan, erakitze irizpide falta egon dela aipatu zuten, “arau subsidiarioak partxeatu eta mer-

katuaren nahietara makurtuta ibili da Udala, eraikuntzako enpresen interesei jarraituz”.

Eta bestetik, eraikuntza publikoetan ikusgarritasuna nagusi izan dela. Honen adibide Udaletxe berria jarri zuten, “handia, marmolak, moketak, kristalerak alde guztietatik, haize girotua urte osoan... dauzkagunak eta bost gastatu beharko ditugu eraikin hori mantentzeko”.

Bestalde alokairuaren alde agertu zen korporazioa eta datoren urtean Plan Orokor berriari ekingo diotela adierazi zuten, “aurreikuspen batekin eraikitze konpromisoa hartzen dugu. Ez dugu zementuan oinarritutako herria nahi, oinarri sozialak dituen herria nahi dugu”.


Lagunkeriarik ez

Honetaz guztiaz gain, hilabete hauetan eman den egoera salatu nahi izan zuten, “hainbat izan dira alkatearen bulegora jo duten pertsonak lanpostu baten eske, alokairu baten eske edo halako mese-de pertsonal baten eske”.


“Hori ez da gure jokoak, guk ez dugu erabiliko gure posizioa lagunkeriatan edota klientelismotan aritzeko” argitu zuten eta Udaletxeko atek herritar guztientzat irekita daudela azpimarratu zuten. •

ALBISTEA/3

Auzolan proiektu berria aurkeztu eta gizarte-eredu berriei buruz eztabaidatuko da Usurbilen



Lasarte-Oriako VIII. Akordeoi Jaialdia egingo da larunbatean Kulturetxean /4



Zahartzaroaren eguna ospatzeko hainbat ekintza burutuko dira asteburuan /5

amaraun ludoteka

2 urtetik 8 urtera bitartekoentzat

Ttakup Kultur Elkarte (Geltoki 4, behe) // 943 371448 // aisia@ttakun.com // www.ttakun.com

asteazkenetan arte txokoa 17:30etatik 19:00ak arte

astelehenera ariketa jolasak (actividades físicas) 17:30etatik 19:00ak arte

Neure kabuz



Oporren ondoren

Egoera ekonomiko kaskarrak arrisku handiak erakusten ditu oraindik. Nouriel Roubini ekonomia guru "ak" uste du herrialde aurreratu gehienak berriro ere atzeraldi ekonomikoan sartzen ari direla. Zalan-tza atzeraldiaren sakontasunean dagoela dio, hau da, handia edo txikia izango den. Ez dirudi, beraz, errekupe-razioa gertu dagoenik. Garbi dagoen ia gauza bakarretako bat Europako Batasuneko eta euroaren guneko herrialdeen koordinazioak areagotu behar duela da, baina hori noski oso gai korapilotsua da. Aukera ederra daukagu aurrean Euro-pako "Batasuna" inoiz baino batuagoa izateko...

Bestalde, gure gertuko inguruari begiratu, Lasarte-Oriako birika nagusietako bat diren Okendo plaza eta Askatasunaren parkearen irekierak ederki zabaldu eta lasaitu du herrigunea... azkenean eta zorionez. Arraroa somatzen da udaltxe berria itxia egotea oraindik (noiz arte?). Parkearen konfigurazioa ere ez da bat ere eroso (horrela geratuko al da?). Zer esanik ez ipini diren banku berriei buruz. Hainbat izkinetan oso zorrotzak dira eta zauriak egiteko oso aproposak. Ezin al dira egokiagoak ipini? Gune berdeetan, belar gainean egoteko edo ibiltzeko aukera egongo al da (mesedez, zakurren kakarik ez)? Ay, eta parkeko harri txuri horiek... umeen (edo ez hain umeen) eskuetan...

Beno, besterik ez... Ah, bai!!! Hainbat zutabekidek Txintxarri idazteari utzi dutela ikusita eta beste zutabekide berri batzuk hasi direla edo hasiko direla, badirudi "betera-noena" bihurtu naizela. Gero arte joan direnei eta ongi etorri datozenei. Tempus fugit...

Iñaki Eraskin

Zorion-agurrak



Idoia

Zorionak "bollito"! Txokomarrubizko muxu goxoak eta ondo pasa mahaspasa!



Eneko

Zorionak Bonbon! 3 muxu potolo, Ane, aitaixo eta amatxoren partetik.



Michel

Ondo pasa Brasilen, bonboi! 730 muxu eta ez ahaztu bueltatu behar zarela. Familia.



Julen eta Xabat

Zorion pila gure tronpetistari eta gure rockeroari! Zoragarri eta jator jatzten ari zarete! Horrela segi! Muxu pila ama eta amatxiren partetik.

Ospitaleetara doan autobusaren ordutegia

Bidairen iraupena 15 mintutukoa da

Lanegunetan	Lasarte-Oriatik irteera (Tajamar errotondatik)	7:30, 8:30, 9:30, 10:30, 11:45, 12:45, 13:45, 14:45, 15:45, 16:45, 18:00, 19:00, 20:00.
-------------	--	---

Hiribusaren ordutegia

	Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras
	7:45	7:55	8:00	8:05
	8:15	8:25	8:30	8:35
	8:45	8:55	9:00	9:05
	9:15	9:25	9:30	9:35
	9:45	9:55	10:00	10:05
	10:15	10:25	10:30	10:35
	10:45	10:55	11:00	11:05
	11:15	11:25	11:30	11:35
	12:15	12:25	12:30	12:35
	12:45	12:55	13:00	13:05
	13:15	13:25	13:30	13:35
	13:45	13:55	14:00	14:05
	14:15	14:25	14:30	14:35
	14:45	14:55	15:00	15:05
	15:15	15:25	15:30	15:35
	16:15	16:25	16:30	16:35
	16:45	16:55	17:00	17:05
	17:15	17:25	17:30	17:35
	17:45	17:55	18:00	18:05
	18:15	18:25	18:30	18:35
	18:45	18:55	19:00	19:05
	19:15	19:25	19:30	19:35
	19:45	19:55	20:00	20:05
	20:15	20:25	20:30	20:35

tsst
943.361.741
www.tsst.info



Azoka txikia

Eskaientza inmobiliarioak

- 116m²-ko aparteko pisua salgai, kultur etxearen parean. Guztiz berrituta. 3 gela, 2 komun, jantzi-gela, egongela eta sukalde ederra. Gela guztiek kalera ematen dute, iñigo de loiola kalera eta geltoki kalera. Sartzeko prest. 330.000 . Tel.: 639 73 84 13
- Pisu bat edo logela bat behar dut errentan, Lasarte-Orian, Andoainen edo inguruan. Harremanetarako: 693 380 377.
- Pisu bat behar dut konpartitze-ko Lasarte-Orian edo inguruan. Tel.: 637 234 705.
- Garaje itxi bat alokatzen da Iñigo de Loiola kalea, Lasarte-Orian. Harremanetarako deitu 686 674 552 telefonora.
- Etxea salgai Hernani erdian. 685 369 952
- Garaje marra bat alokatzen da Urbarten. 648 614 769

Salerosketak

- Autoan jartzeko haurrentzako aulkia (Grupo 0koa, 0-10 kiloko umeentzat, homologatua) eta taka-taka salgai prezio onean. Harremanetarako telefonoa: 697 743 747.

Oharrik jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

- Peugeot Partner kotxe bat salgai, hiru atekoa. Hamar urte ditu. Harremanetarako zenbakia, 628 904 130.
- Bibolin bat salgai, 1/4 neurrikoa, berri-berria. Harremanetarako zenbakia, 628 904 130.

Lan-eskaintzak

- Euskara irakasteko pertsona bat behar da, 6. mailako gaztetxoei gramatika emateko. Irailatik aurrera. 686 320 521, Espe.

Lan-eskaria

- Klase partikularrik ematen ditut, matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia: 646717676. Xabier Puente
- Autolaguntza ikasketak dituen gizona pertsona helduak laguntzeko eskaintzen da. Peio, 943 361 018.
- Laguntza klaseak ematen dira, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa. Talde txikiak, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako zenbakia, 943 376 888 edo 646 645 445 (Maria).

Bestelakoak

- Euskara, ingles, matematika, hizkuntza,... eskola partikularra. 693 601 222, 943 36 25 32

<p>Heriotzak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Juana Arruti Lizaso, irailaren 27an 85 urte zituela • Juan Mari Ikatzeta Berasategi, irailaren 26an 73 urte zituela • M^a Nieves Lezana Echenique, irailaren 21ean 84 urte zituela 	<p>Jaiotzak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zara Georgieva Apolo, irailaren 22an • Olivia Garcia Perez, irailaren 16an • Noa Estevez Romero, irailaren 15ean
--	---

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00	Astelohena, 3 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 Tel.: 943 363549
Ostirala, 30 Gil, Kale Nagusia 24 Tel.: 943 361529	Astearte, 4 Urbisondo, San Frantzisko 1 Tel.: 943 366567
Larunbata, 1 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea Tel.: 943 361774	Asteazkena, 5 Orue, Jaizkibel plaza 2 Tel.: 943 362652
Igandea, 2 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea Tel.: 943 361774	Osteguna, 6 De Miguel, Kale Nagusia 32 Tel.: 943 371151
GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero Chuda, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793	

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak

<p>Lasarte-Oriako Udala Euskarako Batzordea</p>	<p>GFAko Kultura eta Euskara Departamendua</p>	<p>EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA</p>
---	---	--

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.
Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Auzolan Topaketa asteburuan Usurbilen

Egungo gizartearen eredu iraultzeko helburuarekin herriz herri zabalduko da ekimena

Gaur egungo gizartearen nagusi den eredu aldatzeko helburuarekin sortu dute Auzolan egitasmoa Euskal Herri osoko hainbat lagunek eta asteburu honetan Usurbilen elkartuko dira horren inguruko hainbat gai jorratzeko. Gabi Valin Auzolaneko partaideak eman digu egitasmoaren berri.

Auzolan egitasmoa kideen ustez, krisian dagoena ez da bakarrik ekonomia, "zibilizazio osoa, munduan egoteko eta bizitza ulertzeko modua" dago krisian, "naturaren suntsiketa eta jendartearen desartikulazioan oinarritzen den modernitate kapitalista eta patriarkala". Horren aurrean herrien antolakuntza proposatzen dute, antolatuta dauden herritarrek etorkizuneari eragiteko eta gidatzeko ahalmena dutela uste dute eta.

Ostiraletik igandera, urriaren 2ra, Usurbilen burutuko den Topaketan aurkeztuko dute duela hilabete batzuek abiatu zen Auzolan egitasmoa. Topaketak interesa piztu du eta 150 lagunek eman dute izena, beraz antolatzaile eta ekimenez bultzatzaileak kontutan izanik 200 lagun inguruk hartuko dute parte.

Herriz herri sortu nahi dituzte Auzolan talde eta proiektuak, eta sare bat osatu, besteak beste, ekolizpen eta kontsumo ekologikoko kooperatibak, trukea, tokiko txanponak, norbere burua asetzeko energi iturri berriak edota etxebizitza, hondakin, hezkuntza, osasun eta kultur

proiektuak, herritarren oinarritzko beharrak ase eta erantzuteko, beti ere gizartearen eraldatzeko ikuspuntuarekin.

Guzti honetaz arituko dira egun hauetan Usurbilen: "harreman eta elkarlan sare bat eratu nahi genuke; dauden ekimenak ezagutarazi eta bultzatzeko, eta baita dinamika berriak bultzatzeko".

Hainbait eztabaidagai

Topaketa ostiraletan arratsaldeko 4etan irekiko da ekitaldi batekin eta ondoren hitzaldien txanda izango da. Lehen eztabaidagaiak izango dira Krisi Globala, Lankiko Joseba Azkarragarekin 16:30etan, Herri Garapena EHUko irakasle Antxon Mendizabalekin 17:30etan eta eta Kataluniako Kooperatiba Integrala Auzolan-eko Gorka Pinillosek 18:30etan.

Urriaren 1ean larunbatean, goizez, 14 tailer ezberdin egingo dira besteak beste ura eta lurraldea, elikadura, kultura, energia, hezkuntza, etxebizitza, euskalgintza, herri festak, Hacktibismoa, hondakinak, osasuna eta des-hazkundera gaien inguruan. Arratsaldean aldiz biltzarra egingo da: Ekonomia alternatiboa eta tokiko



Auzolan ekimenaren bultzatzaile eta asteburuko topaketaren antolatzaileak aurkezpenean.

txanponak 16:00etan eta Tokiko Batzarrak 17:30etan.

Igandean Auzolan proiektua erakutsi eta aztertuko dute, "auzolanaren kultura" liburu aurkeztuko da Sutegi Kultur Etxean 11:00etan, Euskal Herriko Herrien Auzolan Sarea 12:00etan, Topaketaren Ondorioak eta Auzolan II. Topaketaren iragarpena 13:00etan.

Garai berria jomugan

Lasarte-Orian hainbat urtetan bizi ondoren Usurbilera joan zen Gabi Valinen ustez, garai aldaketa batean gaude eta egoera okertu egingo da: orain arteko "material, energia, zoru, ur,... kontsumoaren hazkunde

progresiboan oinarrituriko garapenak" porrot egin du eta "bertako kultur ereduaren eboluzioaren bidez" beste ezaugarri batzuek dituen garai berrira heldu nahi dute: Garapen ekonomiko lokal eta komunitarioa, Auzolana, Batzarrak eta Demokrazia zuzena.

Auzolan sortu dute "egungo gizarte ereduak gure beharrezkoak asetzen ez dituela eta jendartearen bizi-baldintzak geroz eta kaskarragoak direla ikusirik, bestelako eredu baten alde hemen eta orain lanean hasteko helburuarekin".

Eta horretarako Euskal Herriko tradizio eta kultura kontutan izan dute: "Auzolan

Euskal Herriko kulturari, lanari eta historiari estuki lotuta sortu da" zenbait balore, auzolana, elkartasuna, berdintasuna edo Batzarretako demokrazia zuzena gure herriaren ezaugarri nagusia izan dira eta.

auzolan.info web orrialdean eskuratu daitezke informazio gehiago edota izena eman. Polikiroldegi inguruan lo egiteko lekua prestatu dute, tailerak ikastolan egingo dira eta batzarrak plaza inguruan.

Afalostean, ostiral gauean Donostiako kantu jirakoek abestuko dute, larunbatean Salgotak eskainiko du saioa eta igandeko bazkariarekin eman gogoz diete amaiera topaketei. •



Kukaiaren "karrikan" Okendon.- Okendo plazan dantzatzeko du Kukai dantza taldeak gaur ostirala arratsaldeko 19:00etan. "Karrikan" lanean, sei dantzari eta zuzenean arituko den herriko DJ (Zigor Lanpre) Dj-a biltzen dira. Kale ikuskizun hau hiru koreografoek elkarlanean prestatu dute, beraz hiruren estilo eta koloreek ziprztindu dute lana. Sorbatza zatia, *La Intrusa Danzako* Damian Muñoz eta Virginia Garciak sortu dute, Fight For Fandango Pantxika Telleriak, eta Aupa Mutil Iker Gomezek.



Kukuka antzerki eta dantza eskolak aurkeztu du ikasturte berria

Ostegunean aurkeztu zuen Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak 2011-2012 ikasturtea, 10. izanik, modu berezi batean, Kultur Etxean. Hamar urte bete ditu aurten eskolak eta irakasleek dantzatu zuten koreografia baten ondoren, Kultur Etxea bete egin zuten ikusleek Zorionak Zuri kantatu zioten Kukukari. Orduetik asko hazi da eskola, aurten 19 irakasle, 57 talde eta 700 lagunetik gora arituko dira. Ondoren, Kukukaren abestiarekin egindako Lipduba eta hamar urtetako ibilbidea erakusten duena eskaini ziren eta bukaeran denek batera dantzatu zuten abestia. Asteleheneko Txintxarrian informazio gehiago. •

Nazioarte mailako musikarien kontzertua

- Lasarte-Oriako VII. Akordeoi jaialdia, larunbatean, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur etxean
- Zero Sette orkestrak aurrekontu murrizketari aurre egin eta saioaren maila handiari eutsi dio

Zero Sette Akordeoi orkestrak Udalaren laguntzarekin, Lasarte-Oriako VIII. Akordeoi Jaialdia antolatu du. Ekitaldia asteartean aurkeztu zuten Zero Sette akordeoi orkestra eta Udaleko Kultura saileko arduradunek eskaini zuten prentsaurrekoan.

Nerea EIZAGIRRE

Lehenik eta behin, astearterko prentsaurrekoan, Boris Nogales kultura Batzordeko buruak eskerrak eman zizkion Zero Sette akordeoi orkestrari, "Jaialdia aurrera eramateko egin duten lan bikainarengatik."

"Kontuan izan beharrekoa da ere izan duten malgutasuna. Izan ere, jaialdiaren aurrekontuak jasan dituen murrizketek ez baitute honen kalitatean eraginik izan," atxiki zuen.

Gonbidatuak

Urtero bezala, akordeoi munduan ospe handia duten nazioarteko edo estatuko gonbidatuak izango dira bihar larunbata, 19:30etatik aurrera, Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian.

Zero Sette orkestrako Xabier Gonzalezek prentsaurrekoan aurreratu zuenez,

aurten Jean-Louis Noton frantziarra eta *Klezmatica Trio* Valladolidideko hirukotea izango dira jaialdian.

Nazioarteko doinuak

Klezmatica Trio taldeak Europako ekialdeko judutarren doinuak aurkeztuko ditu kultur etxeko aretoan.

'Shtetl' judutarren giroa erakartzeko saiatuko dira eskainiko dituzten lanekin, *Caravan*, *Stehlt*, *Ajde Dano*, *Emocionando a la novia* eta *Jovano Jovanke*.

Hala ere, haien kantuetan jazz eta musika garaikideko eragina dutela ere azpimarratu zuen Gonzalezek.

Jean Louis Notoni dago-kionez, munduko doinu eta abestiak eskainiko ditu bere akordeoi MIDlarekin.

Hiru lan berri

Hauekin batera laster hogeita bost urte ospatuko dituen



Zero Sette akordeoi orkestrako Maite Janeiro eta Xabier Gonzalez, Boris Nogales Kultura batzorde burua eta Juanxi Ugarte teknikaria.

herriko taldea, Zero Sette akordeoi orkestra entzuteko aukera ere izango da.

Herriko orkestrak hiru lan joko ditu emanaldian eta hirurak estreinatuko izango dira: *Händelen La Llegada de la Reina de Saba*, *El baile de Luis Alonso* Jeronimo Jimenezena eta George Gershwinen *Rhapsody in blue* lanaren moldaketa, Marc-Oliver Brehmek egina.

"Estilo desberdinak uzartuko ditugu hiru lan berri hauetan. Lehenengoan barrokoa, bigarrenean zartzuela eta azkenengoan doinu klasikoak jazzarekin nahastuak" azaldu zuen Maite Janeiro Zero Setteko kideak.

Gauzak honela, "nazioarteko doinuak eta estilo desberdinak izango dira jaialdian eta denen gustukoa izatea espero dugu," adierazi zuten.

Master Class-a

Bestalde, Zero Setteko lagunak jakin arazi zuten, larunbatean bertan 16:30etik 17:30era Jean-Louis Noton frantziarrak akordeoi MIDlari buruzko *master class* bat eskainiko duela.

Noton Cavagnolo akordeoi etxearen MIDI musika tresnen erakusle da eta "aukera paregabea izango da".

Honela, instrumentu hau ezagutu nahi duen akordeoi jole edo musika irakasleei deialdia egiten zieten Zero Setteko lagunak Kultur etxeko aretora hurbiltzera. "Etorzen denari 16:30ean puntual egotea eskatzen diogu," aipatu zuten.

Prezioan akatsa

Astelehenero TXINTXARRIN VII. Akordeoi jaialdi honetako sarrerak 2 eurotaraz saltzen zirela argitaratu bagenuen ere, okerreko informazioa eskaini genuen.

Sarrerak 3 eurotan daude eskuragarri kultur etxeko sarreran. •



'Shtetl' judutarren giroa eta doinuak ekarriko dituzte *Klezmatica Trio*-k. L-O UDALA



Jean-Louis Notonek master class bat eskainiko du bihar, arratsaldean. L-O UDALA



ANAIK

JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA

Tel.: 943 362386





Igandean, urriaren 2an, Zahartzaroaren omenaldiako bazkarian 580 lagun izango dira. Ondoren, antolatu diren brindis eta dantzaldira ordea herriko pertsona adindu guztiak daude gonbidatuak.

Zahartzaroaren omenaldia asteburuan

Ostirala eta igandean hainbat ekintza antolatu dira herriko pertsona adinduei zuzenduak

Bihar urriaren 1a, Pertsona Adinduen Nazioarteko eguna da.

Hori dela eta, Lasarte-Oriako Udaleko Ongizatea, Inmigrazioa, Kooperazioa, Emakumea eta Enplegu arloak zahartzaroaren omenaldi eguna antolatu du igandera, urriaren 2rako.

Hainbat ekintza antolatu dira egun hori ospatzeko. Halabaina, gaur hasiko dira ospakizunak Biyak Bat erretiratuen elkarteak.

Urrezko ezteiak

Aurten urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteak izango dira lehen omenduak.

Erretiratuen elkarteak, Lasarte-Oriako Udala eta Kutxa, Caja Rural de Navarra eta Caixa-ren laguntzaz, oroi-garri bana emango die 50 urte elkarrekin egin duten herriko 19 bikoteei.

Ekitaldia, gaur arratsaldeko 18:00etan izango da elkarte-ko egoitzan.

Igandeko egitaraua

Arestian aipatu legez igandean izango da herriko pertsona adinduen eguna.

Goizeko 11:00etan, hasiko dira ospakizunak San Pedro parrokian.

Meza nagusian, Patxi Etxeberriaren bertsoak, trikitixa taldearen doinuak eta dantzari saioa izango dira.

Irteeran, Ostarte taldeko gazteek loreak banatuko dizkiete pertsona adinduei.

Eta Amalur trikitixa eskolako lagunak doinuekin kalejira alaiak egingo da, parrokia Manuel Lekuona kultur etxeraino. Ondoren, kultur etxean bertan, 12:30ean, Lasarte-Oriako Biyak-Bat erretiratuen elkarte-ko abesbatzak emanaldia

eskainiko du, Maria Luisa Cortajarenaren zuzendaritzapean.

Azkenik, 14:00ak aldera, 580 pertsona adindu bilduko dira Michelin kirolguneko pilotalekua egingo den bazkarian.

Azalpena

Gauzak honela, zahartzaroaren omenaldi bazkariari buruzko argibide eta berrikuntzak azaltzen dituen oharri bidali du Lasarte-Oriako Udaleko Ongizatea, Inmigrazioa, Kooperazioa, Emakumea eta Enplegu Sailak komunikabideetara.

“Ohar honen bidez jakinarazi nahi dizuegu aurten, egoera ekonomikoa dela eta bazkarirako murrizketak egon direla baina hala ere udalak esfortzu handia egin duela jaiak bere horretan jarrai dezan eta esfortzu hau jendeak ere baloratu beharrekoa

dela uste dugu,” adierazten dute oharrean.

Izan ere, aurten mahaikide kopurua murriztua izan da. Iaz 870 herritar izan baziren ere, aurten 580 izango dira igandeko bazkariak gozatzeko dutenak.

Gonbita

Era berean, aurtengo zahartzaroaren omenaldian berrikuntza dagoela jakin arazi dute saileko arduradunek, brindisa eta dantzaldia.

Eta Ongizatea, Inmigrazioa, Kooperazioa, Emakumea eta Enplegu Sailak ekimen honetan parte hartzeko gonbita egin nahi die herriko pertsona adinduei, “bazkaldu ondoren, 16:00etan, herriko jubilatuei gonbidatzen zaituztegu dantzaldira eta bertan egingo den brindisera, denok jaiak goza dezazuen”.

Egitaraua

Ostirala, irailak 30

18:00etan, Urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteei omenaldia. Biyak Bat Jubilatuen etxean.

Igandea, urriak 2

11:00etan, Meza San Pedro parrokian. Bertan parte hartuko du Patxi Etxeberria bertsolariak. Ostean, Amalur eskolako trikitilariak kalejira egingo dute Kultur Etxeraino.

12:30ean, Manuel Lekuona Kultur Etxean festa. Partehartzailea Biyak-Bat jubilatuei etxeko korua.

14:00etan, bazkaria Michelingo pilotalekuan.

16:00etan, brindisa eta dantzaldia.

- **Material elektrikoa**
- **Argiak**
- **Etxetresna elektrikoak**
- **TB/HI-FI**
- **Instalazio elektrikoak**

www.electricidadarregui.com

ETORRI GURE DENDARA!



ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 01

12:00etan, Ostadar- Urola (Infantilen Ohorezko Maila) Michelinen.

14:00etan, Ostadar-Sporting de Herrera (Jubenilen Ohorezko Maila) Michelinen.

15:45ean, Ostadar-Beasain (Emakumezkoen Seniorra) Michelinen.

17:30ean, Texas Lasartearra-Lazkao (I. Erregionala) Michelinen.

09:15ean, Hernani-Texas Lasartearra (I. Kadetea) Zubipe, Hernanin.

11:00etan, Hernani-Texas Lasartearra (I. Jubenila) Zubipe, Hernanin.

12:00etan, Touring-Ostadar (Kadeteen Ohorezko Maila) Fanderia, Erreterian.

12:15ean, Beasain-Ostadar (Infantil Txikiak) Igartza, Beasainen.

15:30ean, Zestoa-Ostadar (I. Erregionala) Iraeta, Zestoa.

18:00etan, Lengokoak-Ostadar (Erregional Gorena) Cesar Benito, Donostian.



Igandea 02

10:30ean, Ostadar-Urnieta (I. Kadetea) Michelinen.

ARETO FUTBOLA

Larunbata 01

17:30ean, Buruntza K.T.Aldaz H.K.-Elorrioko Buskantza (Nazional B maila) Kiroldegian.

18:15ean, Kurutziaziaga ikastola-Eguzki A.F.ISU Leihoak (Euskal Liga) Landakoa Kiroldegia, Durangon.

PILOTA

Ostirala 30

21:00etan, Alde Zaharra-Intza (Eskuz binaka, III. mailako seniorra) Loiola, Donostian.

Larunbata 01

12:00etan, Intza-Txapagain (Eskuz binaka, I. mailako kadetea) Michelingo pilotalekuan.

10:30ean, Antigua-Intza

(Eskuz binaka, I. mailako seniorra) Ibaeta, Donostian.

16:30ean, Ilunpe-Intza I

(Eskuz binaka, II. mailako kadetea) Frontoi txiki, Azpeitian.

ATLETISMOA

Larunbata 01

17:00etan, herriko hainbat korrikalarik Zumaia XV. Zakila Bira proban parte hartuko dute, Zumaian.

Igandea 02

11:00etan, herriko hainbat korrikalarik Done Jakue bidetik egiten den Orreaga-Zubiri VI. Mendi lasterketan parte hartuko dute.

BOLA-JOKOA

Igandea 02

10:00etatik 12:00etara, Martin Egaña eta Santi Garciairen omenezko VIII. bolo memoriale jokatu da, Michelingo kirol guneko bolatokian.

Intzako pilotariak ongi jokatu zuten etxean

Ezker horma txapelketako lehenengo fasea dago jokoan

Duela bi aste eman ziztaion hasiera Gipuzkoako Ezker hormako txapelketari. Hone-tan, besteak beste, Lasarte-Oriako Intza K.E.-ko lau bikote daude: I. mailako seniorrak, III. mailako seniorrak, I. mailako kadetea eta II. mailako kadetea.

Lehenengo larunbatean, horietako hiru bikoteek Michelingo kirol guneko pilotalekuan jokatu zuten eta kalitatezko partidak ikusi ahal izan zituzten bertara hurbildu ziren ikusleak.



Seniorrek partida ona egin arren, ezin izan zuten garaipena eskuratu. TXEMA VALLES

Bi irabazi

II. mailako kadeten bikotea, Aritz Solano eta Xabi Prietok osatutakoa LAPKE 2 taldeko bikoteari 22-18 gailendu zitzaion.

Lazkaoko aurrelariaren lanari esker, hauek 3-8 hasi zuten partida, baina Intzako bikoteak pixkanaka errenta txikitu eta 16-16 berdindu zuten norgehiagoka.

Azkenean, Lasarte-Oriako gaztetxoak egoera fisiko hobegoan zeudenez maila mantendu eta partida irabazi zuten.

Era berean, Jon Peio Arretxek eta Xabi Arteagak, Intzako III. mailako senior bikoteak ere garaipena eskuratu zuen bere partidari. Hauek Gazte-Leku taldeko Xabi Setien eta Jon Belokiren aurka lehiatu ziren.

Partida berdindu eta polita izan zen. Intzako bikoteak partidako azken txanpan lortu zuen errenta eta partidako puntuak herrian geratu ziren.

Bat galdu

Bestalde, I. mailako seniorrak,

Iñaki Lizaso eta Mikel Elola, Azkoitiako bikotearen aurka 14 eta 22 galdu zuten.

Erritmo handiko partida izan zen. Launako berdinketaren ostean, Azpeitiko bikoteak lau puntuko errenta lortu zuen. Bi bikoteek txandaka tantoak egin zituzten. Aurrelari-erik kalitate handiko puntuak egin zituzten eta atzelari-erik lan handia egin zuten.

Tamalez, Azpeitiko bikoteak errenta handitzea lortu zuen eta herrikoek ezin izan zuten ezer egin. •

Kiroletako oharrak

Gaur amaitzen da igeriketa ikastaroen izena ematea

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak urriaren 3tik azarora bitartean igeriketan trebatzeko ikastaroak antolatu ditu, bata helduei zuzendua eta bestea 2005 eta 2006 urteetan jaioetako haurrentzat.

Hastapen eta erdi mailako ikastaroak dira helduenak eta haurren kasuan, hastapen eta jarraipenekoak.

Ikastaro hauen izena ematea gaur amaitzen da. Informazio gehiago eskuratzeko Kiroldegiko bulegotik pasa edo 943 376 182 telefono zenbakira deitu behar-ko du.

Buruntz-Azpi elkarteak

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du, elkartean ohitura den ehiza eta arrantza saileko sari-erik banaketa urriaren 8an izango dela.

Sari banaketa baino lehen egiten den afaria joan nahi duten bazkideek izena ematen behar dute elkartean. Honearako zerrenda bat egongo da eskuragarri elkartean.

Ehiza postuak

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du, Linea Benedikako ehiza postuen zozketak hasi direla. Hauek egunero egiten dira, 20:00etan Buruntz-Azpi elkartean.

Gimnasia Erritmikoa

Lasarte Oriako Kirol Elkarteak gimnasia erritmiko taldea hasi da lanean. Ordu-tegiak ohi bezala, gimnasten maila eta kategoriaren arabera sailkatu ditu. Saiok asteazken, ostegun eta ostiraletan 19:00etatik 20:00etara izango dira eta larunbatean 12:00etatik 14:00etara.

Hauetan izena emateko aukera dago entrenamendu ordutan gerturatuta edota Maiterekin kontaktuan jarrita 676 872 029 telefonon.

Futbol Porra berriro ere martxan da

Ostadar S.K.F.-k 2011-2012 denboraldiko futboleko porra jarri du martxan lehenengo mailako jokalariekin.

Ligako jokalariek taldeetan banatu dira, hala nola, atezainak, atzelariak, zentralak edo aurrelariak eta txartel bakoitzean 11 jokalariko taldea osatu behar da talde bakoitzetik jokalaria bat aukatuz.

Txartelak eta porrako oinarriak gaur irailaren 30a banatuko dira ohiko taber-entan eta urriaren 8ko 16:00ak arte bete eta utzi ahal-ko dira txartelak.

Lehenengo itzuliko porra urriaren 8ko asteburuan hasi-ko da eta lehenengo itzuliko azken jardunaldian, hau da, urtarrilaren 15an amaituko da.

Antolatzaileek azaldu dutenez, itzuli hau bukatzerakoan bigarren itzulari ekingo diote eta hamaikako berria



Lehenengo Futbol Porrako sari nagusia Don Javier Clemente txartelak lortu zuen.

egiteko aukera izango dute partehartzaileek.

Sariak

Jardunaldi bakoitzeko saria egongo da, 60 euro eta Porrako lehenengo eta bigarren sailkatuek, 360 eta 180 euro-tako sariak izango dituzte.

Bigarren itzulian ere porra egingo denez, 2011-2012

denboraldiko bi porren irabazleak 1000 euro eskuratu-ko ditu.

Era berean, hiru urdaiazpiko zozketatuko dira porrako partehartzaileen artean eta azken sailkatuak ere urdaiazpikoa izango du.

Puntu gehien eskuratzen dituen tabernak ere saria izango du. •

Egunero

Erakusketa

AIZE OTANOREN **BEGIRADAK** erakusketa zabalik da irailen zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN



Ostirala, 30

Dantza

KUKAI DANTZA TALDEAK KARRIKAN lana eskainiko du, Kale Antzerkia bultzatuz ekimenaren barruan. OKENDO PLAZAN, **19:00etan**.



Kontzertua

BLAKA taldea donostiarraren rock kontzertua. ABEND KAFE-ANTZOKIAN, **00:00etan**



Tolosako lehiaketan sarien bila

LANDARBASO ABESBATZAK Danok Kideren VII. Musika Topaketei hasiera emango die. Errenteriako abesbatza hurrengo hilabetean egingo den Tolosako XLIII. abesbatzen lehiaketarako prestatzen ari da. Iñaki Tolaretxipik zuzentzen duen taldeak Amaia Dorronsora piano jole lasarteiarraren laguntza izango du doinueta batzuetan.

GAUR, OSTIRALA 30
19:30EAN

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Larunbata, 1

Kontzertua

LASARTE-ORIAKO VIII. AKORDEOI JAIALDIA ospatuko da. Lasarte-Oriako ZERO SETTE AKORDEOI ORKESTRAK, JEAN-LOUIS NOTON musikari frantziarrak eta KLEZ-

MÁTICA TRIO Valladolid-eko hirukoteak estilo eta nazio desberdinetako doinuak eskainiko dituzte emanaldian. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **19:30ean**. Sarrera, **3 euro**.

Igande, 2

Haur Zinea

"LOS PITUFOS" filma ikusgai izango da, Haur zinea atalaren barruan, MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEAN **17:00etan**. Sarrera, **3,30 euro**. GAZTELANIAZ



Osteguna, 6

Hitzaldia

Osasun sailak antolatzen dituen haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, JOSUNE MARTIRENA "HAURRAK, POSIBLE OTE DA ESKATZEN ZAIENA LORTZEZA, ZIGORRIK ETA MEHATXURIK GABE?" gaiari buruz arituko da. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **18:00etan**.



Zinema

Okendo Zinema taldearen eskutik, "CISNE NEGRO" filma eskainiko da MANUEL LEKUONA

KULTUR ETXEAN, **21:30ean**. Sarrera, **4,30 euro**. GAZTELANIAZ

Larunbata, 8

Berto-saioa

G.PUNTUA, Gipuzkoako bertsolari txapelketako FINAL ZORTZIRENEKO SAIOA. Bertsolariak: Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldeg, Iñaki Apalategi, Amaia Iturrriotz, Oihana Iguaran eta Andoni Otamendi lasarteiarrak. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **17:30ean**. Sarrerak, **www.gpuntua.com-en**.



Igande, 9

Zinea

Haurrentzako zinema atalean, "EL ORIGEN DEL PLANETA DE LOS SIMIOS" pelikula eskainiko dute. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **17:00etan**. Sarrera, **3,30 euro**. GAZTELANIAZ



Liburutegiko ordutegia

Astelehenerik ostiralera 10:00 - 13:00 eta arratsaldetan 16:00 - 21:00

Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Urritik aurrera, ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:30etik 10:45era

Oharrak

Kultur Etxeko ikastaroen epea amaitzeaz

Lasarte-Oriako Udal Gazteria sailak, hamalau urtetik gorako gazteentzako antolatutako dituen ikastaroen izena emateko epea gaur, ostirala, irailaren 30ean amaitzen da. Hainbat ikastaro eta tailerretan parte hartzeko aukera dute herriko gazteek. Informazio gehiago, Manuel Lekuona kultur etxeko hirugarren solairuko gazteentzako informazio bulegoan jaso daitezke.

Bestalde, Lasarte-Oriako Udal dantza eskolak datorren astelehenean, urriaren 3an, hasiko du ikasturte berria eta matrikulatzeko epea irailaren 30a arte egin daitezke Kultur etxeko hirugarren solairuan.

Etzeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, gaur irailaren 30an Lasarte-Oriako Etzeratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Udaleku eta Udako Txoketako arropa galdua

Udako txoko eta udalekuetan egon diren hauren gurasoak galdutako arroparen bila hurbildu daitezke Ludotekara.

Arropa urriaren 14ra arte jaso ahal izango da astelehenerik ostiralera arratsaldetan.

Irakodizunak Udalarri

Lasarte-Oriako Udalak herri-tarren parte hartzea sustatze-

ko irakodizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo irakodizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Hirigintzako departamentua Ganbo kalean

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

Hezkuntza iraunkorra

Danak Kide guraso elkarteak

50 urte baino gehiagoko pertsonen hezkuntza iraunkorretarako ikastaroa antolatuko du.

Ikasturtea urriaren 18an hasiko da eta 2012ko maiatzaren 17an izango da amaiera.

Ikastaroan izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko elkarteko telefono zenbakira, 943 371 616, deitu behar dute interesatuek, astelehenerik ostegunera, 10:30etik 12:30era.

Artista eta musikariak deialdia

XpressionK Kultur Elkarteak Lasarte-Oriako musikari, aktore eta edozein esparruko artistak, kultur etxeko kafetegiko eta Jalgi Kafe Antzokiko ekimenetan parte hartzea gonbidatu nahi ditu.

Elkartearrekin harremanetan jartzeko jokin@xpressionk.net helbidera mezu elektronikoa bidali edo 943 368 137 zenbakira deitu.

Alboka abesbatza

Alboka abesbatzak 65 urte arteko herritarrak animatu nahi ditu parte hartzera.

Entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitezte!

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Andoni Otamendi Bertsolaria

“Pozik nago hemen kantatuko dudalako”

Badaki agian txapelketetatik agurra izan daitekeela: “polita litzake azkena herrian izatea”

Lasarte-Orian "oso pozik" kantatuko du Andoni Otamendik, Gpuntua Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final zortzirenetan, Kultur Etxean, urriaren 8an, larunbata, arratsaldeko 17:30etan, Iñaki Apalategi, Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegia, Amaia Iturriotz eta Oihana Iguaranekin batera. Sarrerak interneten, <http://www.bertsosarrerak.eu> helbidean eskuratu daitezke, zortzi eurotan urriaren 7ko eguerdiko 12ak bitartean. Bertsozale elkarteko bazkideek 5 euro ordainduko dituzte eta gazteek 3.

JON ALTUNA IZA

Hurrengo larunbatean irailaren 8an kantatuko du Andoni Otamendik "etxean" eta hori abantaila ote den galdetu genion: "Jakin nuenean poz handia hartu nuen. 18-20 urterekin ez nuen horrelako pozik hartuko agian, baina ilusio handia egin dit hemen kantatzeak, normalean joaten ez diren lagunak joango dira..."

Prestatu al zara txapelketarako?

Normalean prestatu egiten naiz horrelakoetan. Lehenago ere prestatu eta emaitza kaxkarrak jasotakoa banaiz! Parkean gehiago egon naiz preparatzen baino, baina orain ere, prestatu dut.

Ane Labaka final laurdenetik gertu

Ane Labaka final laurdenetatik gertu da, baina oraindik ez dauka txartela ziurtatuta. Hiru saio falta dira eta 463,5 punturekin sailkatzeko aukerak ditu. Bi postu beherago dago Unai Muñoa, 454 punturekin eta hortxe hortxe egongo da final lurdenetan sartuko direnen muga. 18tik 8k gelditu behar bere atzetik.

Serio ari zarete Ttakun-eko Bertso Eskolan...

Bai, Karlos Aizpuruarekin ikastaroa egin genuen; gero aurreko fasea prestatzen aritu ginen; udan oso gutxi elkartu gara, baina bakarka lan pixka bat egin dut, eta orain, azken asteotan, bertso eskolan aritu gara.

Bakarka zuk etxean, zer egiten duzu? bertsoak idatzi?

Ez, idatzi ez, errimategia landu eta bakarka kantatu.

Lasarte-Oriako kanporaketa berezia da lau neska direlako tar-tean; garai berrien adierazgarri al da?

Neskena jada ez zait berezia egiten niri, esan didatelako egin zait deigarria.

Juxtu, gainera, taldeko bi indartsuenak emakumezkoak dira. Gutxiago badira ere, alde horretatik normalten ari da.

Saioari dagokionez, Uxue eta Ainhoa markatuko dute diferentzia, Iñaki ere ondo ibiliko da, eta gazteak ikusi egin behar, ondo kantatuko dutela uste dut, zaharrok lan gehiago izango dugu.

Aipagarri da ama bat izango dela kantuan, Uxue...

Eta aita bat ere bai. Ez da hain deigarria baina...

Ainhoa, gaztea da baina esperientzia handikoa ere bai...

Nik baino lauzpabost urte gutxiago dauzka, baina txapelketa pila batean ibilitakoa da.

Iñaki Apalategi ere ibilbide bat egin duen gaztea da...

Bai. Eta beste biak ez ditut ezagutzen.



Andoni Otamendik etxean kantatuko du urriaren 8an.

Amaia Iturriotz, Ane Labakarekin askotan lehiatu da eskolarteko sariketetan...

Bai, eta badakit puntu asko lortu zituela lehen fasean.

Zu, txapelketan zaharretari-koa izango zara?

Bai, Irazu eta Iñaki Zelaia hor daude ni baino zaharragoak, baina zaharretariakoa naiz.

Nola hartzen duzu hori?

Ilusioa dudan bitartean eta inguru bat dudan bitartean jarraituko dut; izena eman nuen eta ilusioarekin ari naiz, baina badakit izan daitekeela txapelketa batean nire azken saioa. Lau urte barru agian ez naiz apuntatuko. Politia ere izan daiteke hori, azken saioa Lasarten izatea.

Nahiko lasai joango al zara?

Nahi bai. Asko poztzen naiz oraingo honetan ez daukadalako lehiarako gogorik.

Berez asko gustatzen zait lehia, nire burua estutzea, baina ez daukat gogorik.

Egun horretan ez dakit gozatu den baina horrelako zerbait nahi dut.

Baina, urduri, jarriko naiz eta tentsioa ere izango dut, nahi baino gehiago.

Zein helbururekin aurkeztu zara txapelketara?

Nahi gabe ere, nire helburua lehen fasea pasatzea zen eta behin hori lortuta, kitto.

Zenbatgarren txapelketa duzu aurtengoa?

1995ean kantatu nuen lehen aldiz, 1999an taldeka, 2003an, 2007an eta aurtun.

Noiz aritu zara gusturen?

Lehenengo aldiz kantatu nuenean finalerdian aiteetan gelditu nintzen, ordezko.

2003ko lehen faseko saioarekin oso gustura gelditu nintzen, baina gero final laurdenetako saioarekin justu kontrakoa.

Aurrekoan alaba eduki berria nintzen eta saioa eduki ez banu bezala izan zen. 1997an Euskal Herriko Txapelketan ere kantatu nuen.

15 bertso kantatu beharko dituzue. Ofizioan: Iparragirre doinuan, zortziko txikian eta handian; Bakarka: kartzelan, puntuei erantzunez eta oin batekin. Zein lan duzu gustukoena? zein da zailena?

Bakarkakoa asko gustatzen zait, gai bati doinu librean kantatzea. Zailak denak dira, baina puntuari ondo erantzutea oso zaila da, are gehiago, bakarrik bi direnean eta tentsio horretan. Txikian asmatzea, ideiak txispa punturekin ondo tolestea, ere oso zaila da.

Nola ikusten dituzu bertso eskolako beste lagunak?

Unai Muñoa ez da asko etorri, baina oso "bertsolaria" da eta emaitza bere gogo, ilusio eta lanaren arabera egongo da.

Ane Labaka, berriz, izan daiteke txapelketa honetako sorpresa. Horrekin dena esaten dut. Geratu daiteke fase honetan kanpoan, baina finalean ere sartu daiteke. Ane oso ondo ikusten dut.

Nork irabaziko du txapela, ba al daukazu faboritorik?

Uxue Alberdik. Bestela, Beñat Gaztelumendik. Aitor Sarriegi ere hortxe ibiliko da. Finalean hiruzpalau bertsolari berri egongo dira. Bestalde, final guztietan sartzen da gaztetokoren bat eta txartel guztiak Anek dauzka. Ikusiko dugu.



txixarro
erretegia

Etorri, probatu eta ikusi gure kalitate-prezio ona

Txikiardi Auzoa, Iguarte Kalea 11 (Urbilen parean)
20170 Usurbil • Tel.: 943 369964

Astebukaerako menua

Karta

Despedidak
Bataioak
Familiarteko bazkariak

.....